

GAIA: UDALAREN JABARI PUBLIKOA OKUPATZEAGATIKO TASA (jabari publikoaren emakidak) ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA ALDAKETAREN HARIRA EGINDAKO KONTSULTA PUBLIKOAREN IZAPIDEAN AURKEZTUTAKO EKARPENEI BURUZKO TXOSTENA

ASUNTO: INFORME SOBRE LAS APORTACIONES PRESENTADAS EN EL TRÁMITE DE CONSULTA PÚBLICA REALIZADO EN RELACIÓN A LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LA TASA POR OCUPACIÓN DEL DOMINIO PÚBLICO MUNICIPAL (concesiones demaniales)

EGITATEZKO AURREKARIAK

ANTECEDENTES DE HECHO

1) Urtarrilaren 21etik otsailaren 8ra arte zabalik egon da aldagetak eragiten diela uste duten herritarrek eta elkarte ordezkagarriek kontsulta publikoak egiteko eta iritziak helarazteko izapidea.

1º) Del 21 de enero al 8 de febrero el Ayuntamiento ha realizado un trámite de consulta pública para que la ciudadanía y las organizaciones representativas, que se consideren potencialmente afectadas por la modificación puedan hacer llegar sus opiniones al respecto.

Izapidean azaltzen izan da aldagetaren xedea dela Udalaren jabari publikoko ondasunen kalifikazioa duten higiezin eta lokalen gainean Udalak ematen dituen emakidei aplikatuko zaien tasa onartzea.

En dicho trámite se explicaba que la cuestión que se quiere abordar es la aprobación de una tasa que se aplique a las concesiones que el Ayuntamiento otorgue sobre inmuebles y locales que tengan la calificación de bienes de dominio público municipal.

2) Ekarpene bat bakarrik aurkeztu da; hona:

2º) Se ha presentado una aportación con el siguiente contenido:

Z. F., San Nikolas Ikastolaren izenean eta hura ordezkatzuz, alegazio hauek egin ditu:

Z. F., en nombre y representación de la Ikastola San Nicolás, formula las siguientes alegaciones:

“1) Tasen erregulazioaren printzipio egituratzaileetako batek agintzen du haien kopuruak ezin duela gainditu emandako zerbitzuaren balioa.

Ildo horretan, Euskal Autonomia

“1) Uno de los principios vertebradores de la regulación de las tasas prescribe que su número no puede superar el valor del servicio prestado.

Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bateginaren (irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak onartua) 17.1 artikuluan honako hau xedatzen da (lege autonomiko hau hartu da jarraitu beharreko adibidetzat):

1.- Jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasen zenbatekoak dagokion merkatuko balioa edo horietatik eratorritako erabilgarritasunarena izango du guztizko kostuaren muga gisa.

Horrenbestez, egokia litzateke ordenantzak ezartzea xedapen bat adieraziko lukeena, emakidaren eperik luzeena kontuan hartuta (75 urte, Herri Administrazioen Ondareari buruzko Legearen arabera), jaso beharreko tasen baturak ezin duela gainditu emandako ondasunaren merkatuko balioa.

2) Aipatutako 1/2007 Legegintzako Dekretuak xedatzen duenaren ildotik, udal ordenantzak jaso beharko luke tasak murrizteko aukera, emakidak aurreikusten duenean bere onura ekonomikoa gutxitzen duten obligazioak edo kontraprestazioak . Zentzu horretan dio honela dio 1/2007 Legegintza Dekretuaren 53.4 artikulua:

4.- Baimena edo emakida emateak berekin badakar onuradunari betebeharrak edo kontraprestazio jakin batzuk ezartzea, eta betebeharrak edo kontraprestazio horiek onuradunarentzat onura ekonomikoa gutxitzen badute, tasaren oinarria proportzio berean murriztu beharko da, 54. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

Betebeharrak gehigarriak ezartzeak aldizkako tasen zenbatekoa murrizten lagun lezake.

3) Horrez gain, egokitzen jotzen da kontuan hartzea jabari publikoko emakida

En este sentido, el artículo 17.1 del Texto Refundido de la Ley de Tasas y Precios Públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2007, de 11 de septiembre, establece como ejemplo a seguir la presente Ley autonómica:

1.- El importe de las tasas por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público tendrá como límite del coste total el valor de mercado correspondiente o el de la disponibilidad derivada de los mismos. Por tanto, sería oportuno que la ordenanza estableciera una disposición que, teniendo en cuenta el plazo más largo de la concesión (75 años según la Ley de Patrimonio de las Administraciones Públicas), la suma de las tasas a percibir no puede superar el valor de mercado del bien concedido.

2) En línea con lo dispuesto en el citado Decreto Legislativo 1/2007, la ordenanza municipal debería contemplar la posibilidad de reducir las tasas cuando la concesión prevea obligaciones o contraprestaciones que minoren su beneficio económico. En este sentido dice el artículo 53.4 del Decreto Legislativo 1/2007:

4.- Cuando el otorgamiento de la autorización o concesión implique la imposición a la persona beneficiaria de determinadas obligaciones o contraprestaciones que minoren el beneficio económico del beneficiario, la base de la tasa deberá reducirse en la misma proporción, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 54.

El establecimiento de obligaciones adicionales podría contribuir a reducir el importe de las tasas periódicas.

3) Asimismo, se considera oportuno tener en cuenta que en determinadas

jakin batzuetan, emakida-aldia amaitzean, administrazio emakidatzailearen esku geratzen direla emandako lurzorua ginean eraikitako eta zalantzarik gabeko balioa duten eraikin eta instalazio finkoak. Emakiden dinamikak hala eskatzen du.

Horrelako kasuetan aintzat hartuta eraikitakoa jabari publikoan geratuko dela kontuan hartuta, ordaindu beharreko aldizkako tasen zenbatekoa murriztea ekar

lezake. Hori dela eta, proposatzen da etorkizuneko eraikinen balioa kontuan hartzea aldizkako tasak kalkulatzekoan, haien zenbatekoa murriztuz.”

concesiones de dominio público, al finalizar el periodo concesional, quedan a disposición de la Administración concedente las edificaciones e instalaciones fijas construidas sobre el suelo concedido y de valor indubitado. La dinámica de las concesiones así lo exige. Teniendo en cuenta que en estos casos lo construido quedará en dominio público, podría suponer una reducción del importe de las tasas periódicas a pagar. Por ello, se propone tener en cuenta el valor de los futuros edificios a la hora de calcular las tasas periódicas, reduciendo su cuantía.”

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1) Kontsulta publikoaren izapidea egiteko Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 133. artikuluan xedatzen duena aplikatu da.

2) Txosten honen xedea da aurkeztutako ekarpenak jaso eta aztertzea, aldaketa proiektuan txertatu ahal izateko, bidezkoa izanez gero.

3) Ekarpenaren osagaiak:

- a) Tasaren gehieneko zenbatekoa merkatuko balioa izatea edo, bestela, eskuragarritasunaren balioa, halako moldez non emakidaren iraunaldiko urte guztietan jasotzen diren tasa guztien batura ez den ondasunaren merkatuko balioa baino gehiago.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

1º) El trámite de consulta pública se realiza en aplicación de lo dispuesto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

2º) El objeto de este informe es recoger y analizar las aportaciones presentadas a los efectos de su eventual incorporación al proyecto de modificación.

3º) La aportación realizada se concreta en los siguientes aspectos:

- a) Que el importe de la tasa tenga como límite el valor de mercado correspondiente o el de la disponibilidad derivada de los mismos, de forma que la suma de las tasas a percibir durante todos los años de la concesión no supere

el valor de mercado del bien concedido.

b) Emakidak berekin dakartzan betebharrek edo kontraprestazioek mozkin ekonomikoa murrizten badute, tasak murrizteko aukera egotea.

b) Que se contemple la posibilidad de reducir las tasas cuando la concesión prevea obligaciones o contraprestaciones que minoren su beneficio económico.

c) Eraikitzen dena emakida ematen duen administrazioaren eskura geldituko denez gero, eraikinak edukiko duen balioa kontuan edukitzea aldizka ordaindu beharreko tasak kalkulatzeko.

c) Que, dado que lo construido quedará a disposición de la Administración concedente cuando finalice la concesión, se tenga en cuenta el valor del futuro edificio a la hora de calcular las tasas periódicas.

Ordenantzan muga gisa emakidaren iraunaldi osoan jasotzen diren tasen guztirako batura ondasunaren merkatuko balioa baino gehiago ez izatea ezartzeko aukera dela eta.

Sobre la posibilidad de que la ordenanza recoja como límite que la suma de las tasas a percibir durante toda la concesión no supere el valor de mercado del bien concedido.

San Nikolas ikastolak esan du egokia izango litzatekeela ordenantzan ezartzea ezen, emakidaren iraunaldi luzeena kontuan hartuta (75 urte Administrazio publikoen ondarearen Legearen arabera), jasotzen diren tasen batura ezin dela izan ondasunaren merkatuko balioa baino gehiago.

Concretamente la Ikastola San Nikolas plantea que sería oportuno que la ordenanza estableciera una disposición que, teniendo en cuenta el plazo más largo de la concesión (75 años según la Ley de Patrimonio de las Administraciones Públicas), la suma de las tasas a percibir no supere el valor de mercado del bien concedido.

Irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren xedea Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen administrazio orokorrak eskatzen dituen tasak eta prezio publikoak arautzea da. Beraz, ez zaie aplikatzen toki erakundeei; izan ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeei 9/2005 Foru Araua aplikatzen zaie (9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, toki ogasunena).

El citado Decreto Legislativo 1/2007, de 11 de septiembre, tiene por objeto regular las tasas y precios públicos que se exigen por la Administración general e institucional de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Por tanto, no es la normativa de aplicación a las entidades locales que, en el caso del Territorio Histórico de Bizkaia, se rigen por la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre,

Nolanahi ere, 1/2007 Legegintzako Dekretuak 17.1 artikuluan ezartzen duena ez da aurkeztutako iradokizunean adierazten dena; gainera, iradokizunean ez da kontuan hartu merkatu balioa urtero eguneratu behar dela emakidaren iraunaldi osoan, eta hori ezin da kalkulatu emakida ematen denean. Beste alde batetik, 1/2007 Legegintzako Dekretuak 53. artikuluan arautzen du nola kalkulatu behar den jabari publikoko ondasunen erabilera pribatuagatik ordaindu beharreko tasaren zerga-kuota: urtean eskatu daitekeen tasa ondasunaren balio eguneratuaren % 5 izango da.

Berriz ere 9/2005 Foru Agindura etorrita (9/2005 Foru Agindua, abenduaren 16koa, toki ogasunena), gure ordenantza fiskalei aplikatu beharrekoa baita, horren 25.1.a) artikuluan xedatzen da ezen jabari publikoko ondasunen erabilera pribatuagatik ordaindu beharreko tasen zenbatekoa finkatzeko, erreferentzia modura, oro har, honako hau hartu behar dela: ondasunak jabari publikoko izan ezean, horren erabilera edo aprobetxamenduaren ondoriozko erabilgarritasunak merkatuan edukiko lukeen balioa. Xede horretarako, ordenantza fiskalek kasu bakoitzean erabilera eratorriaren merkatuko balioa definitzeko aukera emango duten irizpideak eta parametroak zehaztu ahal izango dituzte, kasuan kasuko erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren izaera espezifikoak kontuan hartuta.

Beste alde batetik, agindu horren beraren 26. artikuluan ezartzen denaren arabera, balio hori zenbateko merkatu-balioa

de Haciendas Locales. En cualquier caso, lo que el mencionado artículo 17.1 del Decreto Legislativo 1/2007 indica no es lo que se plantea en la sugerencia realizada, en la que, por otra parte, no se tiene en cuenta la actualización de dicho valor de mercado a lo largo de los años que dure la concesión, actualización cuyo resultado es imposible de calcular en la fecha de otorgamiento de la misma. Por otra parte el citado Decreto Legislativo 1/2007 completa en el artículo 53 cómo debe calcularse la cuota tributaria de la tasa por la utilización privativa de bienes de dominio público, ya que determina que la tasa anual exigible será el resultado de aplicar el 5% al valor actualizado de los bienes.

Volviendo a la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales, que es la aplicable a nuestras ordenanzas fiscales, su artículo 25.1 a) dispone que el importe de las tasas por la utilización privativa del dominio público local se fijará, con carácter general, tomando como referencia el valor que tendría en el mercado la utilidad derivada de dicha utilización o aprovechamiento, si los bienes afectados no fuesen de dominio público. A tal fin, las ordenanzas fiscales podrán señalar en cada caso, atendiendo a la naturaleza específica de la utilización privativa o del aprovechamiento especial de que se trate, los criterios y parámetros que permitan definir el valor de mercado de la utilidad derivada.

Por su parte, el artículo 26 del mismo texto legal precisa que ese valor se determinará a la vista de informes técnico-económicos,

argitzeko nahitaez egin beharreko txosten tekniko-ekonomikoak hartuko direla aintzat. Txostena espedienteari erantsi behar zaio eta azkenean tasa onartzeko erabakia hartuko da.

que necesariamente han de emitirse, en los que se ponga de manifiesto ese valor de mercado. Dicho informe se incorporará al expediente que desembocará en la adopción del correspondiente acuerdo de aprobación de la tasa.

Horrenbestez, zerga-kuota finkatzeko formula 25.1 a) artikuluan ezartzen denarekin bat etorri behar da, hau da, erreferentzia modura ondasunaren erabileraren ondoriozko erabilgarritasunak merkatuan edukiko lukeen balioa hartuta, tasa onartzeko espediente txertatzen den txosten tekniko-ekonomikoaren arabera.

En definitiva, la fórmula para la determinación de la cuota tributaria se tiene que establecer de acuerdo a lo preceptuado en el artículo 25.1 a), esto es, tomando como referencia el valor que tendría en el mercado la utilidad derivada de la utilización del bien a la vista del informe técnico-económico que se elabore en el expediente de aprobación de la tasa.

ONDORIOA: Aurreko guztia kontuan edukita, ez da bidezkoa aurkeztutako ekarpenean azaltzen den muga ezartzea.

CONCLUSIÓN: A la vista de lo anterior, no se considera oportuno incorporar el límite planteado en la aportación realizada.

Emakidak berekin dakartzan betebeharrak edo kontraprestazioek mozkin ekonomikoa badute, tasak murrizteko aukera dela eta.

Sobre la posibilidad de que se contemple la reducción de las tasas cuando la concesión prevea obligaciones o contraprestaciones que minoren su beneficio económico.

Toki Administrazioiko erakundeei aplikatu beharreko azaroaren 3ko 33/2003 Legeak, administrazio publikoen ondarearenak, honako hau ezartzen du 93.4 artikuluan: *“Ez dute tasarik ordaindu beharko jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak ez badakarkio onura ekonomikorik emakidadunari, edo, onura hori egon arren, erabilerak edo aprobetxamenduak baldintza edo kontraprestazio batzuk badakarzkio onuradunari, eta, horien ondorioz, onura hori deuseztatu edo garrantzirik gabekoa bihurtzen bada”*.

La Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas, de aplicación a las entidades que integran la Administración local, establece en su artículo 93.4 que *“las concesiones de uso privativo no estarán sujetas a la tasa cuando la utilización privativa o aprovechamiento especial de bienes de dominio público no lleve aparejada una utilidad económica para el concesionario, o, aun existiendo dicha utilidad, la utilización o aprovechamiento entrañe condiciones o contraprestaciones*

para el beneficiario que anulen o hagan irrelevante aquella”.

Horregatik, bidezkoa da ordenantza fiskalean tasa ordaindu behar ez den kasua arautzea, emakidak berekin dakartzan baldintzek edo kontraprestazioek onura deuseztatzen edo hutsaltzen dutenerako, hain zuzen. Aurreko hori emakidaren espedientean frogatu beharko litzateke.

Por ello se considera oportuno que la ordenanza fiscal recoja un supuesto de no sujeción para los casos en los que la concesión entrañe condiciones o contraprestaciones para el beneficiario que anulen o hagan irrelevante a aquella. Estas circunstancias tendrían que justificarse en el expediente de otorgamiento de la concesión.

Hala ere, onura ekonomikoaren zati bat, ez dena, galtzen denean tasa murriztea korapilatsuagoa da, arazoak egongo bailirateke ordenantzan formula objektibo eta proportzionala ezartzeko murrizketa kasu guztietan kalkulatu ahal izateko.

No obstante, la propuesta de reducir la tasa cuando ese beneficio económico se vea minorado en parte, no anulado, plantea dificultades a la hora de establecer de antemano en la ordenanza una fórmula objetiva y proporcionada que permita calcular esa reducción con carácter general.

ONDORIOA: Eragozpenak egongo lirateke ordenantzan formula objektibo eta generikoa ezartzeko tasaren murrizketa kalkulatu ahal izateko aipatu diren kasu guztietan.

CONCLUSIÓN: Se observan dificultades para establecer en la ordenanza una fórmula objetiva y genérica que sirva para calcular de antemano la reducción de la tasa en los casos planteados.

Eraikitzen dena emakida ematen duen administrazioaren eskura geldituko denez gero, ordaindu beharreko tasak kalkulatzeko eraikinak edukiko duen balioa kontuan edukitzea aukera dela eta.

Sobre la posibilidad de que, dado que lo construido quedará a disposición de la Administración concedente cuando finalice la concesión, se tenga en cuenta el valor del futuro edificio a la hora de calcular las tasas periódicas.

33/2003 Legearen 101. artikuluan honako hau xedatzen da:

El artículo 101 de la Ley 33/2003 dispone lo siguiente:

“1. Emakida azkentzen denean, emakidaren titularrak eraitsi beharko ditu jabari publikoko ondasunaren gainean

“1. Cuando se extinga la concesión, las obras, construcciones e instalaciones fijas existentes sobre el bien demanial deberán

dauden obra, eraikuntza eta instalazio finkoak edo, betearazpen subsidiarioaren bidez, Administrazioak burutuko ditu ataza horiek emakidadunaren kontura, salbu eta emakida-tituluan berariaz eta bereziki ezarri denean horien mantentzea, edo emakida emateko agintaritza eskudunak hala erabakitzen duenean.

2. Kasu horretan obrak, eraikuntzak eta instalazioak doan eta kargarik gabe eskuratuko ditu Estatuko Administrazio Orokorrak edo emakida eman duen erakunde publikoak.”

ONDORIOA: Aurreko manua ikusirik, ez da bidezkoa jazariko ondasunean egiten diren eraikinek edukiko duten balioa ematea, ez eta ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa murrizteko kontuan edukitzea ere.

ser demolidas por el titular de la concesión o, por ejecución subsidiaria, por la Administración a costa del concesionario, a menos que su mantenimiento hubiera sido previsto expresamente en el título concesional o que la autoridad competente para otorgar la concesión así lo decida.

2. En tal caso, las obras, construcciones e instalaciones serán adquiridas gratuitamente y libres de cargas y gravámenes por la Administración General del Estado o el organismo público que hubiera otorgado la concesión.”

CONCLUSIÓN: No procede, a la vista del citado precepto, que el valor de las futuras construcciones realizadas en el bien demanial se retribuya de ninguna manera ni se tenga en cuenta de cara a reducir el importe de la tasa a abonar.

Diruzaintzako Aholkularitza Juridikoko arduraduna/
Responsable de Asesoría Jurídica de Tesorería